

[Cast/Eusk] Tercera Conferencia de Sortu. Más de lo mismo. Sorturen 3. konferentzia. Zaharrak berri

JON IURREBASO ATUTXA :: 02/10/2019

Llamamos a una redoblada dinámica por la abstención activa y revolucionaria

Castellano

No tenemos acceso a toda la intervención final de dicha conferencia, pero si algunas reseñas de ésta y otras declaraciones publicadas en su afín medio de comunicación, de manera que nos apoyaremos en lo publicado en su versión digital para hacer algunas consideraciones.

Constatamos que la portavocía o sus dirigentes, y por tanto el partido, se ha acostumbrado a manifestar algo y su contrario, a veces, en tan solo unos pocos días. Lo mismo nos hablan de un nuevo estatuto con la burguesía vasca, que son reacios a reivindicarse como autonomistas. Será porque en Euskal Herria muchos vemos un apéndice de España en el estatuto de las vascongadas.

Es lo que tiene insertarse en el sistema renunciando a los objetivos estratégicos históricos del MLNV, pero a la vez, reclamando que “no pasa nada pues somos los de siempre”. Pura esquizofrenia o mentira pura para esconder la función que el capital ha encomendado a la socialdemocracia vasca sea de derecha, de centro o de izquierda.

Así, manifiestan su deseo de romper con el régimen de 1978 y, a su vez, dicen con orgullo que han dado su voto al GAL-PSOE y lo volverán a hacer por la “sociedad vasca” (Iñarritu, defensor del sionismo). A su vez, y como recientemente manifestábamos. No descansan en poner de testigo a “la sociedad vasca” para coser o romper lo que en cada momento les exijan hacer.

En cuestión de días nos hablan de autodeterminación, pero su dinámica, casi olvidada, es la de pedir que nos dejen pedir tal derecho fundamental e inalienable. Esto en el lenguaje popular se conoce como marear la perdiz.

A la vez nos hablan de 3 carriles (vascongadas o Euskadi, Nafarroa Garaia e Iparralde) en el proceso independentista. Los 3 diferentes y cada cual con su ritmo que, por arte de magia, conformarán la independencia vasca para el año 2026. Espectacular. ¿Tendrán algo que ver las excelentes relaciones con los imperialistas Estados Unidos del Norte de América? Es decir, lo mismo que estos imperialistas asesinos y terroristas invaden y destruyen países a lo largo y ancho de todos los continentes, igual les cuadra construir el Estado de Euskadi como en la antigua Yugoslavia lo hicieron con Kosovo. Entendemos que no es el mismo caso ni se dan las mismas circunstancias, pero cuando se está al otro lado de la barricada, cualquier cosa puede pasar.

Nos hablan también de un Frente Independentista. Nos preguntamos, desde la parte vasca, quien es quien en el supuesto Frente si, hasta el momento, todas las fuerzas políticas vascas

institucionalistas acatan la ley de nuestros ocupantes. No vemos agentes reales para tal Frente, repetimos, en la parte vasca autonomista e institucionalizada.

Abogan por la ruptura con “el régimen del 78”. Para saber de qué hablamos, entendemos que es el de la reforma de la dictadura franquista a la dictadura burguesa en su forma monárquica y parlamentarista. Pero, claro, por el bien de la sociedad vasca, votan al GAL como mal menor.

Dicen que nadie para (gana) al pueblo ... Lo que si ha quedado evidente es que sí pararon a los 35, los 5 y los 47. La verdad es que como patrón de muestra no es que sea muy modélico y corrobore tal afirmación. Sobre todo, cuando en el mundo de la Izquierda Abertzale, bastante más amplio que sus estructuras, siempre se hacía lo que se decía y no al contrario que era y es lo más común en la mayoría del espectro político.

Nos dicen también que tarde o temprano Euskal Herria alcanzará la paz y la libertad. Ante esto decimos que los anhelos más preciados que ha reivindicado sin cesar el histórico MLNV y la Izquierda Abertzale en su conjunto, han sido la Independencia y el Socialismo. Ahora Sortu interpreta que la sociedad vasca desea la paz y la libertad. Está comprobado que toda vasca/o que viva en Euskal Herria es lo que más desea pues tiene cubiertas todas sus necesidades más elementales: trabajo digno, vivienda sí o sí para todas y todos, enseñanza superior financiada por lo público, sanidad pública sin recortes, jubilación... Con lo cual, ¿paz y libertad? ¿De qué país están hablando? ¿No será que se han equivocado de manual?

Sortu todavía sigue manteniendo que lo que más daño les hace es el voto independentista de izquierda. Pues tampoco nos cansamos de decir que si las cosas se presentan “feas” el voto de EHBildu irá para el GAL, como ya lo ha hecho y dicho que lo repetirán. Nosotros decimos que a toda estrategia españolista (sin excepción) le viene mal la línea política vasca coherente y revolucionaria que no acepta hacerse el harakiri delante de sus enemigos.

No hay movimiento u otra estructura que tenga como fin el cambio radical del sistema económico, capitalista y patriarcal que no pretenda la creación de un movimiento obrero vasco independiente y revolucionario. Movimiento que habrá de ser independiente de partidos, sindicatos y otros poderes y que sea el sujeto motor de su integral liberación. Es al capital al que le interesa diversificar los frentes de lucha para ocultar la opresión nacional y de clase.

Repetimos. Pretenden la independencia de Euskal Herria en el 2026 y sus caras muestran horror si hablamos de amnistía. Todo hará falta para sacar a los presos políticos vascos y vuelta de deportados y huidos que el conjunto del MLNV dejó mas que tirados/as. Pero, también afirmamos que nuestros objetivos finales no se conseguirán sin una verdadera amnistía pues mañana y pasado habrá nuevas y nuevos presos políticos vascos sin ningún género de dudas.

Y no olvidemos que los aparentes planteamientos de firmeza vienen dados por la proximidad del 10 de noviembre. Después de la resaca electoral, seguirán con el nuevo estatuto de autonomía y mas diálogo con la patronal ante el terrible rebrote de crisis económica que en la práctica tantos están ocultando, etc.

Llamamos a una redoblada dinámica por la abstención activa y revolucionaria y por intentar conformar cuanto antes el movimiento socialista revolucionario vasco de liberación nacional

Euskera

Konferentziaren azken interbentzio osoaren berri ez badugu ere, zenbait aipamen eta adierazpen irakurtzeko aukera izan dugu euren kideko den komunikabidean, horrenbestez, bere agerkari digitalean argitaratutakoa abiapuntutzat harturik, kontsiderazio batzuk egingo ditugu.

Ohartu garenez, batzuetan, bozeramailetak zein buruzagiek, hortaz alderdiak, gauza bat esan eta egun gutxira kontrakoa adierazten dute, hala nola, une batean eusko burgesiarekin itundutako estatutu berriaz ari dira, eta ondoren ez dute gogoko euren burua autonomistatzat jotzea. Agian Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako estatutua Espainiaren gehigarri bat besterik ez delakoan gaudelako asko eta asko Euskal Herrian.

Hori da Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren helburu estrategikoei uko egiteak eta sisteman txertatzeak dakartena eta, aldi berean, “ez da ezer gertatzen, betikoak baikara” aldarrikatu egiten dute. Azken batean, eskizofrenia hutsa edo gezurretan aritzen dira, euskal sozialdemokraziari (kapitalak egokitutako funtzioa ezkutatzeko, dela eskuinekoa, dela zentrokoa edo ezkerrekoa.

Modu horretara, 1978ko erregimenarekin hausteko nahia adierazten dute eta, aldi berean, harro daude GAL-PSOERI emandako botoaz, “euskal gizartearen” alde berriro bozkatuko dutela esanez (Iñarritu, sionismoaren defendatzaile). Modu berean, eta duela gutxi azpimarratzen genuen bezala, “euskal gizartea” testigu gisa jarri ohi dute etengabe, une oro egitea exijitzen dietena josi edo apurtzeko.

Egun batzuetan autodeterminazioaz ari dira, horren aldeko dinamika ia ahazturik badute ere, eta autodeterminazioa eskatzeko eskubidea galdegiten dute, funtsezko eskubide utziezina izanik, herri hizkeran bazterrak nahastea da hori.

Aldi berean, hiru erreietako prozesu independentista aipatzen dute (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa edo Euskadi, Nafarroa Garaia eta Iparralde). Hiru errei eta erritmo desberdinak, eta magia bidez euskal independentzia osatuko dute 2026. urterako, bai ikaragarria! Zerikusirik izango ote dute Ipar Amerikako inperialistekin (Estatu Batuak) dituzten harreman bikainek? Hau da, inperialista hiltzaile eta terrorista horiek, kontinente guztietako herrialdeak inbaditu eta suntsitzen dituzten modura, agian, antzinako Jugoslaviako Kosovon gertatu bezala, Euskadiko Estatua eraikitzea bururatzen zaie. Jakitun gara kasu eta kondizio berberak ez direla, baina lubakiaren beste aldean egonez gero, edozer gerta daiteke.

Era berean, Fronte Independentistaz ari dira. Euskaldunon aldetik nor den nor ustezko Fronte horretan galdetzen dugu, kontuan edukita, orain arte, euskal indar instituzionalistek men egiten diotela gure okupatzaileen legeriari. Berriro diogu, euskal autonomista eta instituzionalizatuen artean ez dugu ikusten inongo eragile errealik halako frontea osatzeko.

“78ko erregimenarekiko” haustura defendatzen dute. Zertaz ari garen jakite aldera,

diktadura frankistatik diktadura burgesera igarotzeko erreformatzat jotzen dugu erregimen hori, monarkia parlamentaristarekin. Baina, jakina, euskal gizartearen ongizatearen alde eginez bozkatzeko diote GALi, hau da, aukerarik txarrenetan onena.

Inork ez omen du herria geldiarazten (ez dio irabazten) ... baina argi geratu da 35ak, 5ak eta 47ak geldiarazi egin zituztela. Egia esan, lagin-patroi eredugarria ez izateaz gain, ez dator bat goiko esaldiarekin, batez ere, Ezker Abertzalearen munduan, egituretatik askoz haratago zabaltzen dena, esandakoa beti bete egiten zela kontuan edukita eta ez alderantziz, espektro politikorik gehienez gertatzen zen eta gertatzen den bezala.

Halaber, bakea eta askatasuna lehenago edo geroago iritsiko dela Euskal Herrira diote. Horren harira guk diogu Independentzia eta Sozialismoa direla Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu historikoak eta Ezker Abertzale osoaren etengabeko aldarrikapenik preziatuenak. Orain, Sorturen interpretazioaren arabera, euskal gizarteak nahi ditu bakea eta askatasuna. haien frogatuta dagoenez, horiek dira Euskal Herrian bizi den euskal herritar ororen desiorik handiena, oinarritzko behar guztiak beterik baitituzte: enplegu duina, etxebizitza bai ala bai guztientzat, finantzazio publikoaren bidezko goi mailako irakaskuntza, murrizketarik gabeko osasun sistema publikoa, jubilazioa... Beraz, bakea eta askatasuna? Zein herriz ari dira? Okerreko gidaliburua al darabilte?

Sortuk oraindik dio ezkerreko bozka independentista dela kalterik gehien egiten diena. Bada, guk behin eta berriz haxe diogu: egoerak "okerrera" egiten baldin badu, lehenago gertatu bezala, EH Bilduren botoa GALen aldekoa izango da, eta hala jokatzeko prest omen dago berriro ere. Guk diogun bezala, euskal ildo politiko koherente eta iraultzaileak kalte egiten die estrategia espainolistei (salbuespenik gabe), izan ere, ez dago onartzerik etsaien aurrean harakiri egitea.

Sistema ekonomiko, kapitalista eta patriarkalean aldaketa erradikala egiteko helburu duen mugimendu edo bestelako egitura orok euskal langile mugimendu independente eta iraultzailea sortzeko nahia agertzen du beti. Halako mugimenduak alderdi, sindikatu eta bestelako botereetatik independente izan beharko du, bai eta, bere askatasun osoaren subjektu eragile ere. Kapitalari borroka fronteak dibertsifikatzea interesatzen zaio, nazio eta klase zapalkuntza ezkutatzeko aldera.

Berriro diogu, 2026. urterako Euskal Herriaren independentzia nahi dute, baina amnistia aipatzean izu aurpegia ipintzen dute. Den-dena eman beharko da euskal preso politikoak kalera atera eta deportatuak nahiz iheslariak itzul daitezen, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu osoak erabat baztertuta utzi egin zituenak. Baina badiogu ere egiazko amnistia ezinbestekoa dela gure azken helburuak lortzeko, bihar eta etzi, inolako zalantzarik gabe, euskal preso politiko berriak izango baitugu.

Ez ahaztu, azaroaren 10a hurbiltzen ari den heinean, itxurazko planteamendu sendoak gauzatu egingo direla. Baina hauteskundearen ostean, autonomia estatutu berriari ekingo diote berriro ere, aldi berean, hitz egingo dute patronalarekin krisialdi ekonomikoren berragertze bortitza dela kausa, praktikan hainbeste pertsona ezkutatu nahian badabil ere, eta abar.

Abstentzio aktibo eta iraultzailearen aldeko dinamika erraldoi baterako deia egiten dugu,

bai eta, nazio askapenerako euskal mugimendu sozialista eta iraultzailea ahalik eta lasterren osatzen laguntzeko ere.

<https://eh.lahaine.org/cast-eusk-tercera-conferencia-de>